

Espezie honek beste hainbatekin batera osatzen duen leguminosoen familia oso dibertsua eta ugaria dela esan behar dugu. Hau da, familia hori zuhaitz, zuhaiska eta landare desberdin ugari osatzen dute, baina hala ere, landare horien guztien lorearen eiteari begiratu gero, erraz samar jakingo dugu zein familiakoak diren eta gauza bera gertatuko da fruitua aztertuz gero, ezagun ditugun leka tipikoak ematen baitituzte. Ulex generoari heltzen badiogu, oso zuhaiska adarkatua eta arantzaduna dela esan behar dugu, seguruenik denontzat aski ezaguna. Genero horretako bi espezie aipatu ohi dira Euskal Herrian (Ulex europaeus eta



U. gallii), baina litekeena da Iparraldean beste espezie bat egotea (U. minor hain zuzen ere). Dena dela, genero horretako espezieen aldakortasuna kontutan harturik

eta orain artean egindako ikerketen arabera, ezin esan dezakegu besteren bat azalduko ez denik. Oraingo honetan aztergai dugun ote zuria, 2,5 metroko zuhaiska izatera heltzen da eta bere adar nagusiak, beti ere **tente eta arantzadunak, ziztatzeko** prest azaltzen zaizkigu. Espezie horren hostoak filokladoak dira, hau da arantzaitzurakoak, eta galtzarbeetatik ateratzen dira adartxo multzoak sortuz. Abendutik Maiatzara bitartean, filokladoen galtzarbeetan kolore hori biziko lore ugari ematen ditu, nahiz urtean zehar ere bakar batzuk azaldu. Fruitua berriz, leka beltzaska eta ileeduna izaten da. Europako mendebaldean hazten da eta Euskal Herrian, klima ozeanikoa eta lurzoruak azidoak diren lekuetan batez ere, oso arrunta da. Itsas-mailatik mendi gailurretaraino dago hedatuta eta harizti, amezti eta pagadien ordeko **sastrakadiak eta txilardiak kolonizatu ohi ditu**.

Landare honek alkaloida bat du zitisina izenekoa, **eta hori dela eta bihotza tonifikatzeko** erabili ohi da. Asma eta buruko mina sendatzeko ere erabiltzen da. Aipaturiko alkaloide hori hazietan egoten da gehien bat, baina kontu handiz erabili beharrekoak dira, arrisksuak gerta daitezke eta. Loreak, infusio modura hartu izan dira hidropesiarren kontra.

Mendiko ziztada: OTE ZURIA

Joxepo Terés*

* Naturalista.

FITXA TEKNIKOA

Ote zuria

Familia:	leguminosoak
Espeziea:	Ulex europaeus
Banaketa:	arrunta atlantiar isurialdean
Habitata:	baso desberdinen ordezkapen sastrakadietan
Sendabelarra:	bai

